

Diru-sarrerak

Gure negozioaren diru sarrera nagusiak menuen salmentak izango dira, bezeroek menuengatik ordaindutakoak. Gure diru sarrerak ordainketa bakarraren bidezko sarrerak izango dira, hots, bezeroak aldi bakarrean egindako ordainketatik eratortzen direnak.

Menu bakoitza 12,5€-tan saltzea erabaki dugu, uste dugulako prezio horretan hainbat pertsonak gure menuak probatuko dituztela. Jarraituz, urtean 18.250 menu salduko direla kalkulatu dugu, bataz beste egunean 50 menu salduko ditugula aurreikusten bait dugu. Menuak bakarrik osoak izango dira eta ez da egongo plater bakarrak hartzeko aukera beraz, urteko diru sarrerak 228.125€-koak izango dira.

PRODUKTUA	KOPURUA	PREZIOA	GUZTIRA
Egungo menuak	18.250 (urte osoan)	12,5€	228.125€